

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Hasierako onespena ematea 2020ko ekitaldirako aurrekontu orokorrari

Udalbatzak, 2020ko urtarrilaren 8an balio osoz egindako ohiko osoko bilkuran, erakundearen 2020ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aipatutako espediente hori jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunetik, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onartutzat joko da; bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Izarra, 2020ko urtarrilaren 9a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAÑA